DOBERA EUSKARA ELKARTEAREKIN ZUZENEKO DIRU LAGUNTZA HITZARMENA

1. Onuraduna

Elkartearen izena: Dobera Euskara Elkartea
IFK zenbakia: G20456653
Helbidea:Larramendi 11, behea
K/K zenbakia (20 digitu): Nafarroako Rural Kutxa 3008 0170 17-2877320826
Ordezkaria: Felix Olasagasti Arsuaga. NA: 44142470-L

2. Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da herrian euskararen erabilera normalizatzeko helburuarekin Dobera Euskara Elkarteak antolatzen dituen egitasmoak sustatzea eta diruz laguntzea.

3. Hitzarmenaren justifikazioa

Euskararen erabilera normalizatzeko beste elkarte batzuk ere badira herrian, AEK eta Bertso eskola, esaterako; lehena euskararen gaitasuna sendotzera bideratua, nagusiki, eta bigarrena, bertsolaritzaren bidez ahozkotasuna lantzera, biak oso esparru jakin eta zehatzetara mugatuak. Dobera Euskara Elkartea berariaz euskararen erabilera sustatzeko sortua da, eta herriko hainbat esparrutara iristeko helburua duena. Esan gabe doa, helburu horretara heltzeko elkarlanean aritzen da herriko gainerako elkarteekin ere.

Irabazi asmorik gabeko elkartea da Dobera Euskara Elkartea eta haren helburuak bateragarriak dira udal honen diru laguntza plan estrategikoarekin, 2023 -2025eko planaren 4. lerro estrategikoan jasoa dagoen moduan.

2002an sinatu zuten hitzarmena Dobera Euskara Elkarteak eta Hernaniko Udalak herrian euskararen normalizazioa sustatzeko helburuarekin, eta indarrean jarraitzen du, urtez urte berrituz.

2017an, udalak, martxoaren 16ko Euskara Batzordean adostutako irizpideari jarraiki, hainbat egitasmo euskara arlotik ez, baizik eta kultura arlotik bideratzeko proposamena egin zion Dobera Euskara Elkarteari, kulturarekin zerikusi zuzenagoa zutelakoan, eta hala segitu dugu orain arte: egitasmo batzuk Kultura Saileko norgehiagokako diru laguntzen bidetik bideratu dira (Hala Bazan, Ipuin faktoria, Laburbira, Euskarazko zinea, Bota bertsoa eta kultur emanaldiak) , eta euskararen normalizazioarekin berariaz lotutako egitasmoak, berriz (Jolas eta solas, Negulekuak, Hamaika batuaz, motibazio saioak, udaleku ibiltariak, gure artean euskaraz, Euskara ari du, Webgunea berritu eta elikatzea, Dobera saria...), Euskara Saileko zuzeneko diru laguntzen bidetik.

2019an, jarraipena eman ahal izateko Euskara Ari Du egitasmoari, 7.000 euroko kopurua gehitu zion udalak Dobera Euskara Elkartearen diru laguntzari[1]; eta 2020an, 20.000 euroko diru laguntza zuzena aurreikusi zuen, Euskara Ari Du urte osoko ekimena aurrera eramateko.

2023an Hernaniko Udalak herriari begirako Euskara Plana onartu du 2023-2027 epealdirako. Dobera Euskara Elkartea planaren baitan sortutako Euskararen Kontseiluko kide da. Plan horretan jasota dauden lehentasunezko lerroetan dauden lan-ildo batzuk, indartu beharrekoak, dagoeneko lantzen ditu Dobera Euskara Elkarteak (Euskaraldia, merkatariengan eragitea, herriko zenbait kirol elkarteetan euskararen erabilera sustatzeko metodologia, ...); baliteke, gainera, planaren lehentasunen arabera Dobera Euskara Elkarteak beste lan-ildo batzuk hartzea edota gaur egun lantzen dituenetan egokitzapenak egin behar izatea. Beraz, egoki ikusten dugu gaur egun Dobera Euskara Elkarteak jasotzen dituen bi dirulaguntza lerroen helburuak argi bereiztea:

1. Alde batetik egongo litzateke Dobera Euskara Elkartearen urteko egitasmoak diruz laguntzeko lerroa (Hamaika Batuaz, udaleku ibiltariak, negulekuak, mintzalaguna...).

2. Eta, bestetik, herriari begirako Euskara Planetik eratorritako Dobera Euskara Elkarteak kudeatuko dituen egitasmoak bideratzeko diruz laguntzeko lerroa; Euskara Ari Du izeneko egitasmoko dirulaguntza lerroa ordezkatuko du.

4. Diru laguntzaren zenbatekoa eta aurrekontu kontsignazioa

Zenbatekoa eurotan: 58.000€

- Dobera Euskara Elkartearen urteko egitasmoak: 32.000€
- Herrirako begirako Euskara Planetik eratorritako egitasmoak: 26.000€

Partida zenbakia (diru laguntza izenduna): 02.481.02.335.00

5. Diru laguntza ordaintzeko epeak eta moduak

Diru laguntzaren %75 aurrerapen gisa ordainduko da, martxoan.

Diru laguntzaren %25 justifikazioa aurkeztutakoan ordainduko da (hurrengo urteko otsailean, beranduenik), ondoko puntuan zehazten diren dokumentuak aurkeztutakoan.

1 Euskara ari du. Baietz hernanik! egitasmoa abian jartzeko *Euskara Ari Du* izeneko elkartea sortu zen 2017ko abenduan eta harekin hitzarmena sinatu zuen Hernaniko Udalak. 2018ko abenduan, ekimena amaituta, elkartea desegin egin zen eta egitasmoa Dobera Euskara Elkarteak hartu zuen.

6. Diru laguntzaren justifikazioa

a) Epea: Urtarrilaren 31

b) Diruz lagundutako jardueraren memoria, ondoko gutxieneko edukiarekin: Proiektuaren azalpena; diru laguntza zer helburutarako eman den; egindako jarduerak, ezarritako helburuak eta lortutako emaitzak.

c) Egindako jardueren kostua justifikatzeko balantze ekonomiko laburtua, Hernaniko Udalaren diru laguntza kontuan hartu gabe izandako DEFIZITA adieraziz.

d) Gastu eta sarreren zerrenda sailkatua, gastu kontzeptuen arabera antolatuta. Zehaztuta izango ditu: hartzekoduna, dokumentua, zenbatekoa, jaulkitze data eta ordainketa data. Zerrenda horren gain, Udalak burutu beharreko ikuskatze eta kontrol lanetarako, ikuskaritza eta laginketa-teknikak erabiliko ditu.

e) Kontabilitate ekitaldia amaitu ondoren, Ogasunaren aurrean aurkeztutako "Sozietate Zerga" aitorpenaren kopia, 6.c. atalean aitortutako datuekin bat egin behar duena.

f) Jasotako beste diru laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa, xedea eta jatorria adierazita.

g) Zerga betebeharren ziurtagiriak: Foru Ogasuna (eta Gizarte Segurantza, hala badagokio).

h) Hala badagokio, aplikatu ez diren soberakinen itzulketaren eta haietatik etorritako interesen ordainketa gutuna.

7. Hitzarmenaren iraupena

Hitzarmena urtero berrikusiko da eta gehienezko iraupena 4 urtekoa izango da (2024-2027), beste 4 urtez luzagarria, alde bietakoren batek kontrakorik adierazten ez duen bitartean.

8. Aplikatu beharreko araubide juridikoa

Diru laguntza hau arautuko du, diru laguntza emateko irizpen honetan ezarritakoak ez ezik, Diru-Laguntzen Lege Orokorrean (38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa) eta lege horretako araudia onartzeko Errege Dekretuan (887/2006 Errege Dekretua, 2006ko uztailaren 21ekoa) ezarritakoak, bai eta Udal Diru Laguntzen Araudiak.

Zuzeneko diru laguntzetarako baldintzak:

- Aurrekontuetan izendun gisa aurreikusia egotea (887/2006 Errege Dekretua, 65. artikulua).

9. Onuradunaren aitorpena

Onuradunak aitortzen du ez dagokiola diru laguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan diru laguntzaren onuradun izateko ezarrita dauden debekuetako bat ere.

10. Helburu bera duten beste diru laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna

Diru laguntza hau bateragarri izango da edozein administraziok edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu berarekin emandako diru laguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin nahiz baliabideekin. Betiere, aintzat hartu beharko da diru laguntza edo laguntza horiei dagokien arauetan ezarritakoa. Hala ere, diru laguntzen Lege Orokorreko 19.3 artikuluari jarraiki, emandako diru laguntzaren zenbatekoa (bai bakarrik, bai beste diru laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera) ezingo da, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.

11. Kontabilitate liburu eta erregistroak, diru laguntza egoki justifikatzea bermatzeko eta finantzak kontrolatzeko eskatuak

Onuradunak jardueraren gastu eta sarrera guztiak kontabilizatu beharko ditu. Kontabilitate liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako agiriak izan beharko ditu, behar bezala ikuskatuak, aplikatzekoa zaion merkataritzari eta sektoreari buruzko legedian xedatua den moduan. Justifikatzeko agiriak gorde beharko ditu, egiaztatu eta kontrolatu ahal izateko, lau urtez.

Era berean, laguntza eman beharko die Udal Administrazioko organoei, eta haiek eskatutako agiri guztiak eskuratu beharko dizkie; berdin jokatu beharko du Europako Batasuneko arauen arabera finantza kontroleko eginkizunak dituzten organoekin ere.

12. Hitzarmenaren jarraipenerako adierazleak

Lerroen arabera, honako hauek izango dira hitzarmenaren betetze maila neurtzeko adierazlea, hitzarmenak dituen bi lerroetan eta egitasmo motaren arabera bereizita:

1. Alde batetik egongo litzateke Dobera Euskara Elkartearen urteko egitasmoak:

    a) Euskaraz sozializatzeko eta praktikatzeko guneak (Hamaika Batuaz, Mintzalaguna, Udaleku Ibiltariak, Negulekuak...):
    Adierazleak:
        - Talde kopurua:
        - Emandako saio / egun kopurua:
        - Ordu kopurua:
        - Parte hartzaile kopurua:

b) Sentsibilizazio eta aktibazio jarduerak (Sentsibilizazio saioak, Euskaraldia...)
   - Jarduera jaso duen erakunde kopurua:
   - Emandako saio kopurua:
   - Ordu kopurua:
   - Parte hartzaile kopurua:

2. Herriari begirako Euskara Planetik eratorritako Dobera Euskara Elkarteak kudeatuko dituen egitasmoak:
   a) Kirolean eragiteko egitasmoak:
      - Egitasmoa jaso duen erakunde kopurua:
      - Eragin den talde kopurua:
      - Emandako ordu kopurua:
      - Eragin den parte hartzaile kopurua:

   b) Merkataritza euskalduntzeko egitasmoak:
      - Bisitatutako establezimendu kopurua.
      - Konpromisoren bat hartu duen establezimendu kopurua.
      - Egindako jarraipen-bisita kopurua.
      - Hartutako konpromisoen betetze maila.

13. Erantsitako dokumentazioa

Hitzarmenarekin batera, honako dokumentazio hau erantsiko da:

a) Elkartearen eskaera edo memoria: Diruz laguntzen diren jardueren azalpena, lagundutako bi lerroak ondo bereizita; eta aurreikusitako jardueraren balantze ekonomikoa (sarrerak eta gastuak).
b) Elkartearen estatutuak, aldaketarik balego.
c) Saileko teknikariaren justifikazio-txostena.
d) Zerga bete-beharren ziurtagiriak: Ogasuna eta Gizarte Segurantza.
e) Banku kontuaren titulartasuna akreditatzen duen agiria, aldaketarik balego.

Hernanin, 2024ko martxoaren 7an

Hernaniko Udalaren izenean
Xabier Iertxundi Asteasuinzarra, alkatea

Elkartearen izenean
Felix Olasagasti Arsuaga, Dobera Euskara Elkarteko lehendakaria